

Ari du

Marrazkitan blai

Daniel Nesquens

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Aizkorri, Bilbo, 2007

Banengoen ba ni... Daniel Nesquens idazle ezagunaren *Marrazkitan blai* liburu berria esku artean hartzean, zerbait ekarri zidan gogora. Liburuetan bila eta bila ibili, eta horratx: Daniel Nesquens-en *Euria* liburua, biak ere Elena Odriozolak ilustratuak gainera, biak ere Aizkorri-k argitaratuak. Eta bietan ere leitmotiv bera: euria, euria eta marrazkiak, euria eta ostadarra.

Bi liburuak berrirakurririk, iruditu zait *Euria* hura deskriptiboagoa dela, pausatuagoa alegia. Haur bat da narratzailea, baina bere ingurukoa azaltzen digu, bere sentimenduak kontatu. *Marrazkitan blai* hau, ostera, narratiboagoa da, aurrekoaren tempus bera du ('Poliki zihoan denbora'), aurrekoaren ildo beretik dator, baina uholdea dakarren euria da oraingoan, bortitza, haurrak eskolan harrapatzen dituen, nahiz eta, harrigarria bada ere, dramatismo edo larritasunik batere agertu ez.

Egia esan, Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaren *Gerlari Handia* liburuan, ekintzak ezustea ekarri zigun, istorioak berak garrantzi handiagoa zuen, eta Nesquens-en hau generoaren barnean badago ere, argi dago egileak deskripzioaren aldeko hautua egin duela, narratibotasunaren kaltetan. Uholdeak, ekaitzak, ekintza gehiago eragin zezakeen, haurraren beldurrak piz zitzakeen, baina hemen dena da sotil eta xume, lasai eta pausatu. Esan bezala, gustu kontuak.

Hala ere, aldaketa edo bilakaera handiagoa Elena Odriozolaren ilustrazioetan antzeman dugu. Aldatu da Odriozolaren trazoa, akaso koloretsuagoa da gainera oraingoan, eta urtsuagoa ere bai, lausoagoa; zuriguneak nagusiago dira eta testua interpretatzeko orduan libreago ikusi dugu: adibidez, idazleak dioenean 'Txolarre bat kantuan hasi zen zuhaitz baten adarretik. Zerbait zeraman mokoan. Bere habiarako adar zatitxo bat agian', orduan ilustratzaileak txolarre bat marraztu du parkean, baina lehen eskolako patioa zena eta orain putzu dena, komuneko konketa bilakatu izan balitz bezala ageri da, eta txoria tapoia kentzen dabil.

Baina Odriozolaren ilustrazioa ez da bakarra. *Euria* hartan, idazleak zioen: 'Euria marraztea oso erraza da; arkatza hartu eta marra motzak marraztea baino ez da. Marra aldenduak. Pixka bat okertuak. Baina euria marrazten baduzu, hodei bat marraztu behar duzu, marratxoak darizkiola'. *Marrazkitan blai* honetan, ostera, eskolako neska-mutikoak dira denbora pasarako marrazkilari bilakatzen direnak, eta

bi albumetan soluziobide den ostadarra erakutsiko digu mutiko batek oraingoan, nahiz eta kanpoan oraindik ere euria bota ahalean izan.

Amaitzeko, esan beharra dago itzulpena, bere laburrean, oso zaindua iruditu zaigula, gozo sartzen dela alegia. Jon Suarez idazlea izan zen *Euria* hura itzuli zuena; oraingoan, baina, haren izenik ez dator eta zalantza horrekin geratu gara. Edozein modutan, atsegin hutsa, kanpoan giro ez den bitartean...

Laura Sagastume